

Seaskan 137 ikasle gehiago, haize kontra bada ere

SEASKAK 2014-2015 eskola sartzearen datuak eskaini ditu: 3.220 ikasle ikastola guztiak kontuan hartuta, iaz baino 137 ikasle gehiago. Ikastetxeak haur-gazteez mukuru dira, nahiz eta Frantziako Estatuak eta bateko eta besteko herriko etxeek eskoletako atak irekitzeko baino ixteko bultzadak eman.

Ziburuko haur eskola da kinka larrian dagoena. Irailaren 15ean obrak hasiko dituzte Seaskak 12 haur bungalowan dituen lur eremuan. Guy Poulou Ziburuko alkateak ohartarazi du Seaska: obrak hasiko dira eta ikastolarentzako

tokirik ez dago. Irtenbiderik ez du proposatu, isuna bai, haurrak ikastolara eramaten jarraitzen badute. Isunaz gain, ura eta argindarra moztu dizkiete. Kazetariei erantzuten, bere etxeko atarian irudikatzen dut Poulou, irribarrez esanez: “Ni baino gehiago zinetela uste al zenuen ba?”.

Seaskak esan du haurrek eskolara joaten jarraituko dutela, eguneko behar dituzten 200 euroak (100 euroko isuna eta argindarra sortzeko makinaren alokairua) ordainduko dituztela. Han segituko dute aterabideren bat aurkitu arte.

Katalunian 40 familiak eskatu dute eskolan gaztelaniaz aritzea



XAVIERPUJOLGUARRO.BLOGSPOT.COM

Eskola katalanaren aldeko leloa darama emakumeak bizkarrean.

ESPAÑIAKO Gobernuak Hezkuntza Ministerioak bi eskola sare osatu nahi ditu, bata katalanez arituko dena, eta bestea, gaztelaniaz arituko dena. Familiak gaztelania aukeratu nahi badute horretarako eskubidea daukate. Bada, 2014-2015 ikasturtean 40 familiak baino ez dute eskatu haien seme-alabak gaztelaniaz aritzea. Orain eskaera guztiak banan-banan aztertuko dituzte onartu ala ez erabakitzeko. Izan ere, Kataluniako Hezkuntza kontseilari Irene Rigauk adierazi du eskaera horietako batzuk dekretua onartu baino lehenagokoak direla eta beste batzuk matrikulazio epetik kanpo egin direla.

Lomceren arabera, Generalitatea ez bada gai gaztelaniaz ikasi nahi duen haurra eskola publikoan eskolaratzeko ikastetxe pribatua aurkitu behar dio. Hala eginez gero, erkidegoaren transferentzietatik 6.000 euro kenduko litzekioke haur bakoitzeko Espainiako Hezkuntza Ministerioak.

EKONOMIAREN TALAIAN

Lan prekarietateak ere hiltzen du

BAI, LANEKO PREKARIETATEAK, gainean dugun kapitalismo basatiaren bultzadaz, hil egiten du. Euskal errealtateak beste behin erakutsi digu hori. Abuztuko azkeneko eta iraileko aurreneko lehen egunetan bost langilek galdu dute bizia, hiruk eraikuntzan. Urtean zehar 30 dira hildako langileak. Hori da sinetsarazi nahi diguten berreskuratze ekonomikoa, langileen eta beren familien sufrimenduan eta heriotzan oinarritua. Administrazioak dio hildakoak asko murriztu direla. Baina ezkututzen dutena haxe da: egitan murriztu dena aktibitate ekonomikoa dela eta ondorioz lan istripu gutxiago dagoela. Hildakoak tarteko adineko pertsonak izan ohi dira, immigranteak eta beste enpresa batek azpikontratatuak.

Joan den astean Euskal Herriko sindikatu eta eragileen protestak egin dituzte. Lan prekarietatea salatu dute, azpikontratatzeko, hildakoak eragiten dituzten murrizketa sozialak, segurtasunean nahi-

koa inbertitzen ez duen Patronalaren jarrera, administrazioen pasibotasun konplizea, eta abar. Hori guztia ondo dago. Baina bi gai nabarmendu behar dira: Sindikatuek eta enpresa batzordeek ez lukete mugatu behar lan istripua gertatzen den bakoitzean hura salatu eta mobilizatzea. Adi egon behar lukete azpikontratatzeko, lan esplotazioa, ordu estrak eta segurtasun falta daudela sumatzen duten enpresetan. Batzordeak dauden tokietan, hori zaintzea erraza da. Baina zaintza hori batzorderik eta sindikaturik ez duten enpresetara zabaldu beharko litzateke, hor baitute lan istripuak izateko arrisku gehien. Eta badaude baliabideak egiteko. Azkenik, fiskaltzak bere kabuz ekin beharko lioke istripuak ikertzeari, salaketa egon ala ez. Ez al da ba nahikoa lanean hildako bat egotea?

Juan Mari Arregi



**Eskulanen
Etxea**

Elkano kalea, 5. Donostia 20004
T. 343 420 205 | F. 943 426 522 | M. 688 662 858
info@casalabores.com | www.eskulanenetxea.com